



Arartekoaren 2019R-64-18 Ebazpena, 2019ko martxoaren 21ekoa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari gomendatzen diogu etxebizitzarako prestazio ekonomikoa ezesteko ebazpen bat ikuska dezan.

Aurrekariak

1. Arartekoak herritar batek aurkeztutako kexa izapidetzeko onartu zuen. Gipuzkoako Etxebizitzako lurralde-ordezkararen erabakiarekin ez zegoen ados. Nolanahi ere, etxebizitzarako prestazio ekonomikoa ezesten zitzaion, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularra zelakoan.

Bere kexa idazkian, kexagileak azaldutakoaren arabera, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria 2017ko uztailen eten zizkion. Bi ebazpenetan Lanbideren zuzendari nagusiak adierazitako arrazoiak hauexek ziren:

- *"BUaren titularrak eta/edo BUko kideak dituen laneko diru-sarrerak bizikidetza-unitateko kideen kopuruaren eta bizikidetza-unitate motaren arabera dagokion gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarritzko errentaren hileko zenbatekoa baino handiago izatea."*

Kexagileak lan-jarduera mugagabea hasia zuen.

Horregatik, 2017ko abuztuaren 16an, kexagileak etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubide subjektiboa onartzeko eskatu zuen eta, horri lotuta, egiaztatu zuen 2009az geroztik "Etxebide" Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erregistroan etengabe izena emana zuela.

2. Hortaz, Gipuzkoako Etxebizitzako lurralde-ordezkariek 2017ko irailaren 6an ebatzi zuen etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubide subjektiboa onartzea. Hala eta guztiz ere, prestazio ekonomiko subsidiarioa ezetsi zuen honako hauetan oinarrituta:

- *"(...) eta (...) titularrak diren etxebizitzako prestazio ekonomikoa, ekainaren 18ko 3/2015 Etxebizitzaren Legearen 9.artikuluaren aurreikusitako ondorioetarako, prestazio ekonomiko subsidiarioa dela"*

3. Etxebizitzarako prestazio ekonomikoa ezesteko erabili ziren arrazoiarekin ados ez zegoenez, kexagileak 2017ko irailaren 19an gora jotzeko errekurtsua jarri zuen (Zuzenean zerbitzuaren erregistro-zenbakia: 705259).

Kexagileak bere idazkian adierazitakoarekin bat, uztailetik ez zuen Lanbideren prestaziorik jaso. Zehazki, lan-kontratuaren kopia, Lanbideren zuzendari nagusiak





diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eteteari buruzko ebazpenak eta bi prestazioak etenak zeudela egiaztatzeko Lanbideren ziurtagiria aurkeztu zituen.

Adierazitako guztia gorabehera, Etxebizitzako sailburuordeak gora jotzeko errekurtsua ezetsi egin zion 2017ko azaroaren 17an. Zehatz-mehatz esanda, Etxebizitzako sailburuordeak ebazpena hurrengoan oinarritu zuen:

- *"... el recurrente es aún titular de una prestación complementaria de vivienda de Lanbide que puede ser reanudada y mientras ese derecho no se extinga, consideramos que no procede conceder la prestación económica de vivienda que solicita."*

Horretarako, lege funts modura 2016ko azaroaren 4ko 1/2016 Instrukzioa, Etxebizitzako sailburuordearena¹, etxebizitzarako prestazio ekonomikoaren kudeaketari buruzkoa, erabili zuen. Modu horretan, 2. artikulua haxe ezartzen du:

- *Etxebizitzako Prestazio Ekonomikoa bateraezina da gainerako administrazio publikoek premia berari erantzuteko eman ditzaketen bestelako prestazioekin. Bereziki, honako hauekin da bateraezina:*
 - o *a) Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean araututako etxebizitzako prestazio osagarriarekin.*

4. Azaldutako egitateak ikusita, Arartekoak lankidetzaren eskaera bat igorri zion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari.

Bere idazkian, Arartekoak alde aurretiko gogoeta batzuk helarazi zituen, eta horiek geroago azalduko ditugu, errepikakorrak ez izateko.

5. Erantzun modura, erakunde honen erregistroan Gipuzkoako Etxebizitzako lurralde-ordezkariek egindako txostena sartu zen. Azaldutako gertakariak baieztatu zituen eta etxebizitza duin eta egokia lege okupatzeko eskubidearekiko prestazio osagarri subsidiarioaren eskaera ezesteko erabakia berretsi zuen.

Azkenik, jakinarazitakoaren arabera, 2018ko ekainaren 8an Gipuzkoako Etxebizitzako lurralde-ordezkariek kexagilearen izena emateko eskaerari baja eman zion, errentamenduaren araubidean babes publikoko etxebizitza esleitzeari berriaz uko egin baitzion.

¹ **Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.** 1/ 2016 Instrukzioa, 2016ko azaroaren 4koa, Etxebizitzako Sailburuordetzarena, Etxebizitzako prestazio ekonomikoaren Kudeaketari buruzkoa [Linean eskuragarria http://opendata.euskadi.eus/contenidos/tramita_circular/cios_pno_118291_16_04/es_def/adjuntos/2016%20instrucci%C3%B3n%20pev%20def%20eu.pdf]



6. Hortaz, beharrezko egitateak eta zuzenbide-elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

1. Duela hamarkada batzuetatik, bai 1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (25.1. artikulua), bai 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (11.1. artikulua), baita Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak (34.3. artikulua) ere, azpimarratu izan dute etxebizitzak alderdi soziala duela, pertsonen eta beren familien bizi-baldintzak hobetzen dituelako.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2013ko martxoaren 14ko epaiak (C-415/11 Auzia) eta ondorengo erabaki judizialek² agerian utzi dute botere publikoek premiaz jardun behar dutela dagozkien eskumen-eremuetan, ohiko etxebizitza izateari eta erabiltzeari lotutako oinarrizko eskubideak bermatzeko.

2. Gauzak horrela, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 7. artikulua ezartzen du administrazio-azotasuna Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan duen pertsona orok eskubidea duela etxebizitza duina, egokia eta irisgarria izateko.

Gainera, 3/2015 Legearen 3.v) artikulua honako hau jotzen du etxebizitza edo bizitoki egokitzat: bere tamainagatik, kokalekuagatik eta ezaugarriengatik pertsona, familia edo bizikidetzaren unitate jakin bat bizitzeko egokia den etxebizitza edo bizitokia.

Aurretik adierazitakoa osatzeko, Nazio Batuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordearen³ 4. Ohar Orokorrak etxebizitza bat egokitzat hartzeko zenbait baldintza ezartzen ditu, gastuei aurre egin ahal izatea, esaterako.

3. Alde horretatik, 3/2015 Legearen 9. artikulua etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubide subjektiboa asetzeari begira modalitate desberdinak ezartzen ditu. Zehazki, Erkidegoko legegileak modu honetan asetzea aurrez ikusi du:

"...bete ahal izango dute horretarako eskumena duten euskal administrazio publikoek, alokairuan eskura jarrita etxebizitza babestu bat edo bizitoki babestu bat, edo baita etxebizitza libre bat ere baldin eta erabilgarri badago bitartekaritza-programaren batengatik."

² Besteak beste, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2016ko abenduaren 21eko epaia (Sala Nagusia; gai metatuak: C-154/2015, C-307/2015 eta 08/2015).

³ Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmena aplikatzen dela gainbegiratzeaz arduratzen den organoa. Testu osoa hemen eskuragarri: https://conf-dts1.unog.ch/1%20SPA/Tradutek/Derechos_hum_Base/CESCR/00_1_obs_grales_Cte%20Dchos%20Ec%20Soc%20Cult.html#GEN4



Hala eta guztiz ere, etxebizitza edo ostatua izan ezean, modu subsidiarioan:

- *"...eskubidea prestazio ekonomikoen sistema bat ezarrita bete ahal izango da."*

Laburbilduz, etxebizitzarik eskuragarri ez badago, erkidegoko legegileak zehaztu du etxebizitzaren beharra asetzeko eskumena duen sailak prestazio osagarria onartu behar duela.

4. Arestian azaldutakoari dagokionez, etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubide subjektiboa araubidez garatu arte, 3/2015 Legearen laugarren xedapen iragankorrek behin-behineko lege-araubidea aurrez ikusten du eskubidea zehaztu eta pixkana aplikatzeko.

Testuinguru horretan, prestazioa bizikidetzaren unitatearen osaeraren, diru-sarrera zehatzak egiaztatzearen eta "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan gutxienez lau urteko antzintasuna izatearen araberakoa da.

Dena den, 3/2015 Legea indarrean sartu zenetik ia 4 urte igaro direnean, oraindik ez da araubidezko garapenik egin, beraz, Arartekoak prestazio ekonomikoa lortzeko disfuntzioak antzeman ditu.

5. Hain zuzen, kasu honetan, kexagileak errentamendu-araubidean izena emanda duen antzintasuna, bizikidetzaren unitatearen osaera eta diru-sarrerei buruzko eskakizunak bete arren, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak ez dio prestazioa onartu.

Arrazoia hau da: sailaren ustez, kexagilea eta bere bizikidetzaren unitatea diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren hartzaileak direla, nahiz eta Lanbideak uztailen eten zien, aurretiaz jakinarazitako lan-jarduera hasi zuela egiaztatu zuenean.

Alderdi horren berri Gipuzkoako Etxebizitzako lurralde-ordezkaritari eman zaio, baina honako hau erantzun du:

- *"No se concede la Prestación Económica de Vivienda (PEV) porque se constata de la información obtenida de la interfaz de Interoperabilidad que en julio de 2017 han percibido la prestación complementaria de vivienda PCV por importe de 250 euros."*

Hala eta guztiz ere, ez da ahaztu behar kexagileak etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubide subjektiboa onartzeko abuztuaren 16an eskatu zuela eta, aldi berean, gora jotzeko errekurtsioa azaroaren 17an jarri zuela. Bi une horietan, bizikidetzaren unitatea ez zen Lanbideren prestaziorik jasotzen ari.



6. Arartekoak 5/2017 Legeak, abenduaren 22koak, 2018. ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak onartzen dituenak, zortzigarren xedapen gehigarrian idatzitakoa ezagutzen du. Edukiaren arabera, etxebizitzarako prestazio ekonomikoa onartzeko araubideak diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen arau-edukiari erreparatu behar dio.

Horren babesean, Arartekoak berriz errepikatzen du etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubide subjektiboa araubidez garatua ez dagoenez, pertsona askok, 3/2015 Legean xedatutako araubide iraunkorraren eskakizunak bete arren, etxebizitzarako prestazio ekonomikoaren eskubidea onartzea ezin duela lortu.

Hala, etxebizitzarako prestazio osagarria onartzeko 18/2008 Legean eta 2/2010 Dekretuan, urtarrilaren 12koan, etxebizitzarako prestazio osagarriari buruzkoan, xedatutako eskakizunak 3/2015 Legeak berak eskatzen dituenekiko nabarmenki desberdinak dira.

7. Ikuspegi berdina defendatu du Eusko Legebiltzarreko osoko bilkurak 12/2017 Legez Besteko Proposamenean, Etxebide Euskal Etxebizitza Zerbitzuaren erregistroan onarpen-irizpideak berritzeko neurriei buruzkoan⁴.

Hain zuzen, osoko bilkuraren erabakiz Eusko Jaurlaritzari honako hau eskatu zitzaion:

- *"bederatzi hileko epean garatu dezala Etxebizitzaren 3/2015 Legeak jasotzen duen etxebizitza- eskubide subjektiborako irispidea arautzeko dekretua. Hori egin dezala kolektiboei, gizarte-eragileei eta herritarrei oro har irekita egongo den herritarren parte-hartzerako prozesu baten markoan, eta ahal beste sentsibiltate eta kasuistika jasotze aldera".*

Era berean, haxe eskatu zitzaion:

- *"...bermatu dezala ezen etxebizitza duin bat izateko eskubide subjektiboa arautzeko dekretuaren garapenak ez dakarrela inolako murrizketarik orain arte aitortutako eskubideetan, ez baldintzei ez zenbatekoei dagokienez."*

Dena den, orain arte etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubide subjektiboak ez du araubidezko garapenik.

8. Kasu honetan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak argudiatutakoarekin bat, prestazio osagarria ezesteko oinarritzko arrazoia Lanbideren erabakia zen. Horren arabera, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta

⁴ **Eusko Legebiltzarra**. 12/2017 Legez Besteko Proposamena, Etxebide Euskal Etxebizitza Zerbitzuaren erregistroan onarpen-irizpideak berritzeko neurriei buruzkoa.

http://www.legebiltzarra.eus/ords/f?p=CTP:INICIATIVA_DETALLE:1280092478206::NO:RP:P18_ID:57558&p_lang=eu



etxebizitzarako prestazio osagarria eten zitzaizkion, kexagileak lan-jarduera ordaindua hasi zuela egiaztatu zuenean, egiaztatu baitzen gehieneko zenbatekoa baino diru-sarrera handiagoak zituela.

Hala ere, Arartekoak testu arautzailea aztertu ondoren, diru-sarrera bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoa eteteagatik eta horretarako emandako arrazoiengatik ez du etxebizitzarako prestazio ekonomikoa ez onartzeko arrazoirik antzematen.

Azaldutakoaren babesean, 18/2008 Legeak, diru-sarrerak bermatzeko errenta aldatzeari buruzko azaroaren 24ko 4/2011 Legearen hamahirugarren artikulua aldatzen duenak, 26.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, etenaldiaren egoera gehienez hamabi hilabetez luza daiteke hura iraungi arte.

Interpretazio mugatzailea eginez gero, kexagileak etxebizitzarako prestazio ekonomikoa ezingo luke jaso diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria iraungi arte eta, horretarako, hamabi hilabete igaro behar dira, nahiz eta 3/2015 Legeak laugarren xedapen gehigarrian adierazten dituen baldintzak eta eskakizunak betetzen dituela egiaztatu duen.

Arartekoaren iritziz, hori disfuntzio bat da, eta sailak erantzuna eman behar dio.

9. Are gehiago, Arartekoaren ustez, Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpenak bi prestazioak iraungi beharko lituzke, eta ez etenaldian utzi, Lanbideko zuzendari nagusiak baieztatutakoaren arabera.

Hain zuzen ere, 18/2008 Legearen 16 artikulua diru-sarrerak bermatzeko errenta lortzeko baldintzat jotzen du nahikoa baliabiderik ez izatea. Ondasun nahikoak izatea, ordea, prestazioa lortu eta mantentzeko baldintza ez betetzea da eta, horren ondorioz, ezin daiteke hura onartu.

Labur esanda, Lanbidek prestazioaren indarraldian baldintza bat betetzen ez dela egiaztatzen badu, prestazioa iraungi egingo da ezinbestean.

Are gehiago, 18/2018 Legeak 28.1 e) artikuluan eta 147/2010 Dekretuak, maiatzaren 25ekoak, diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzkoak, 49 f) artikuluan xedatutakoaren babesean, iraungitzeko arrazoiak hauek dira:

- *"Eskubidea aitortua izateko eskatutako betebeharren bat behin betiko galtzea."*

Azaldutako guztia dela eta, gogorarazi behar da diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eteten direla titularrek edo bizikidetzak-unitateko kideek eskakizunak bete ez dituztelako, eta, aztergai duen kasuan, Arartekoak ez du ez-betetzetik hauteman.





Azkenik, Arartekoak egiaztatutakoaren arabera, 3/2015 Legeak eta 5/2017 Legeak beren arauetan ez dute debekatzen etxebizitzarako prestazio ekonomikoa onartzea, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria etenda daudenean.

Hala, Arartekoaren ustez, prestazio osagarria modu arrazoituan ezestea justifikatzeko lege oinarririk ez dago.

Era berean, Arartekoak berriz azpimarratzen du Eusko Jaurlaritzak eskubide hori araubidez garatu behar duela lehenbailehen. Hori guztia egin behar da prozedura behar bezalako gardentasunaz eta lege-segurtasunaz hornitzeko.

Ildo horri eutsiz, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, Arartekoak honako gomendio hau egin nahi du:

GOMENDIOA

Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari gomendatzen dio, prestazio osagarria ezesten duen Gipuzkoako Etxebizitzako lurralde-ordezkararen ebazpena ikuska dezan, egiaztatu baita, kexagileak ez duela prestazio ekonomikoa bateraezinik jasotzen 2017ko uztailaz geroztik.

Beraz, gainerako eskakizunak beteko balitu, etxebizitzarako prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea 2017ko abuztuaren 16an eskatu zuenetik 2018ko ekainaren 13an "Etxebide" Etxebizitza Babestuko Eskatzaileen Erregistroan baja eman zitzaion arte onartu beharko litzaioke.

Nolanahi ere, Arartekoak errepikatu du Eusko Jaurlaritzak etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoa araubidez garatu behar duela lehenbailehen.

